

Alaitz Aizpuru Joaristi

**Joxe Azurmendi 60ko
poesiaren eraberritzean**



zaldiarri.7

© 2016 Alaitz Aizpuru Joaristi
© Azala eta marrazkiak: Aitor Irulegi
© Edizio honena: HEA. Gabriel Arestiren etxea

2016ko uztaila

Maketazioa: Gráficas RD
Inprimaketa: Gráficas RD

HEA Kultura elkarte. G. Arestiren etxea
posta@eakopoesiaegunak.eus
www.eakopoesiaegunak.eus
Ea (Bizkaia)

**Joxe Azurmendi 60ko
poesiaren eraberritzean**

Alaitz Aizpuru Joaristi

*Eskerrik asko Herrijeri Emon Arnasa
kultur elkarteari, hitzaldi hau
prestatzeko eta argitaratzeko gonbita
luzatzeagatik. Eta eskerrak baita ere,
Eako poesia egunetara gerturatutako
orori, elkarrekin horren asteburu
ederra pasatzeko aukera bikaina eman
izanagatik.*

Joxe Azurmendi Otaegi euskal saiogile aparta eta oparoenetarikoa dugu. Bere filosofia eta saiakera lanengatik hamaika aldiz saritua, aski ezaguna da eta ez du aurkezpen handirik behar. Bere poesia lanak ez dira ezagunegiak, ordea. Bere lan idatzi eskerbaren zabaltasunean poesia liburu bakarra, gaztetako *Hitz Berdeak* (1971), noizean behin aipatu ohi da, bere poemen artetik ere oso bakanka aipatzen delarik “Manifestu atzeratua” ez den besterik.

Liburu hartako hitz berde haiek, eta zentsura zela medio liburutik kanpora geratu ziren beste batzuk, 60ko bueltan, euskal poesia modernoaren hastapen hitzetako batzuk izan ziren baina, eta garrantzitsu zaizkigu. Euskal historia hurbila eta urte haietako literaturaren eraberritzea ulertzeko lekuko eta bide urratzaile ezinbestekoak baitira. “Existenzialismo soziala hemen ageri da Arestik ikur bilakatu baino lehen” (Izagirre, 2000). Gizarte kontzientzia handia dago Azurmendiren poemetan, garaiko problema eta kezka batere ezkutatu gabe adierazteko lana eta nahia.

Poesia erlijiosoa, existentziala eta soziala uztartuz, nitasunaren literatura eta aldarrikapen sozialen poesia landuko ditu, nitasun pertsonala eta nitasun kolektiboa esku emanik. Existentziaren drama eta ironia, poz eta minak, paradisu galdu eta amestuak, kristautasunari kritika gogorak, Jainko zahar eta berrien ukapena, euskaldunaren eta giza aberearen patua, euskalduntasun tradizionalaren kritika, askatasunaren aldarrikapena, askatasunaren beharra eta honen pisuaren mingotsa, denboraren joan kontrolagaitza eta bizitzaren ihesa, iraultzaren ideiak eta garaiko ideologiak, esperantzaren gazi-gozoak, norberaren nahien eta errealitatearen arteko ezin bateratua, desilusioaren urradura, gorpuztasuna, sinetsi nahi eta ezina, euskal herriaren eta langilegoaren arazoak, urte haietako euskal herri itxi eta itogarria.

Belaunaldi baten mundu ikuskera eta urte haietan ezagututako unibertso moralaren gainbehera hitz gutxitan ezin hobeto formulatzen asmatu zuelako, hausnarketa filosofiko eta etiko sakonak ahapaldi labur batzuetan eskaintzearen nekeza eta meritua duelako. Eta atzoko zein gaurko irakurle askorentzat gaurkotasun handiko lerroak direlako, merezi du Azurmendiren poesia gogoratzea.

Saio honetan, hainbatean bada ere, Azurmendiren poesia pentsamenduaren aldetik jorratuko dugu. Bere poemetan agertzen diren zenbait ideia bere beste lan batzuekin erlazioan jarriz, modu horretara hitzon atzean dagoena agertarazteko saikera labur bat eginez.

HERRIAK SOFRITZEN DAUDEN ARTEAN


Herriak sofritzen dauden artean / beti dira poetak /
astiarekin rinozeronteari kilimak egiteko, / pobreak
triste bizi diren artean / eta mundua heriotzera
doalarik, / delfinak orrazteko.

Bainan nik ez dut betarik / langileen bekokian
izerdi lokatza / ta nekearen zimurra ez baino /
pentsamentuarena ikusi arte.

Beti dira poetak / ibaian umeak itotzen egonda
ere / ilargia dizdiratzen baizik / ez dutenak ikusten.

Beti dira poetak / arratsalden hil kanpaia jotzen
denean / aingerutarakoa dela pentsatzen dutenak.

Nik ez dakit zer esan. / Auskalo zer ari zaigun /
esku-artean gertatzen. / Baina nazkagarria da poeta
izatea.



1. HAMARKADA BATEKO LANA

Bere poesia liburu bakarrean, *Hitz Berdeak*, egilearen hamarkada bateko lan poetikoa biltzen da, 58 inguruan hasi eta 70 artekoa. Ondorioz, aipatzekoa da liburuak argia ikusi zuenerako, 71n, poema askok beren urteak zituztela. “Beraz, zenbait poesia oso zaharra da liburu hontan. Alegia, euskal kondizioetan zaharra, lehengo koaderno osoa eta bigarreneko zenbait atal behintzat Arestiren *Harri eta Herri* baino lehenagokoak baitira” (Gandiaga, 1971: 10)

Aldi desberdinetan idatziriko poemak hortaz, hamarkada hartan zehar ezagutu eta bizitako toki, garai, egoera eta batzuetan sentipen besteetan konbikzio ezberdinetan onduak. Liburuaren koadernoetan barrena, Azurmendiren pentsamenduaren eta sentimenduen eboluzio bat agertzeraino.

Azurmendik kontatzen du poesia bere formazioan oso presente egon zela. Arantzazun, seminarioan literatura estudiatzen zutenean poesia ugari irakurri behar izan zutela eta bera oso zalea zela. Buruz andana ikasi zituela, batez ere Unamuno eta Machadorenak. Literatura formazio horretan ordea, garaian ohikoa zen gisa, gaztele-
ra, frantsesa eta latina lantzen zituztela, hizkuntza bakoitzari zegokion literaturarekin. Hala bada, bere gogoz, klasetik kanpo, poesia idazteari heldu zionean gazteleraz eta frantsesez ekingo zion.

Lehen poemetako bat, hamahiru urterekin jazotako aitaren heriotzaren inguruan izan zen.

Frantsesez idatzia hastapen batean, gazteleraz ondoren eta honekin ikasleen saritxo bat irabazia, geroago berriz, hasierako zirriborro hartatik buelta asko emanda jada, euskaraz landua, eta hizpide dugun liburuan publikatua “Aita hil, aita hil” izenburupean.

AITA HIL, AITA HIL

Aita hil, Aita hil. / Aita hil dik Jaungoikoak. Nola datorkidan gauetz eguzkia. Aita hil, Jaungoikoak aita. Izar malkoak gauetz / zerutik behera. / Eta egunez euri / ta gauetz ilargi. / Zazpi urte dira / hil zidanetik. / Eta urtero berriz / ta egunero berriz, / ta gauero berriz, / ta berriz hiltzen dit.

Arantzazutik, hiru urterako, Erriberriko frantziskotarren komentura filosofia ikastera joatean, bere lehen poemak idazten hasiko da 58/59 urteetan. Erriberrin mundua irekiko dion liburu-tegi handi eder batekin egingo du topo, eta han gogoko dituen irakurketei ekin, tartean autore existentzialistak.

Nobela eta irakurketa filosofiko haietan garaian presente zeuden auzi eta eztabaida ugari zetozen. Halatan, erlijioaren inozentzia hori filosofiak asko pitzatu ziola kontatzen du. Irakurketa eta autore haien oihartzunak daudela uste du ezinbestean urte haietako poemetan, orduko galderetatik sortuak ei direla *Hitz Berdeake-*

ko poemak eta “gogoratzen naizenez, nik uste dut polemikoenak edo kritikoenak Erriberrikoak direla”. (Agirre, 2014)

Beste jakingarri bat, Azurmendi Euskal Herria eta euskara deskubritzen Erriberrin hasi zela da. Arturo Campion, Iturralde y Suit, etab. irrika handiz irakurritz.

Erriberritik Arantzazura itzultzean 59/60 urteetan, aldaketa garrantzitsu bat dator, beregan eragin handia izango zuen Bitoriano Gandiagaren ezagutza. Behin Arantzazun, euskara hutsera itzuliko da eta hor ekingo dio bere poesia lan batzuk ezagutarazteari. Sarritan aipatzen du, euskarazko poesiara etortzea eta euskarara etortzea elkarrekin etorri zirela. Poesiarekin egin zuela euskal kulturaren mundura eta baita euskararen berreskurapenerako ere saltoa.

Hurrengo lau-bost urteetan, *Jakin* aldizkari-ko hasieran laguntzaile eta ondoren zuzendaritzako lanak, zein bere irakasle lanak tarteko, poesia gutxi idatziko du.

1965ean erbesterako bidea hartu eta berriz ere poesiara itzuliko den arte; “Trenetan, busetan, parkeetan eta nunahi idatzi nuen denpora hartan, agian neure burua galtzeko bildurrez” (Azurmendi, 1971:10). 68-70 bueltarako poesia idazteari utziko dio. Pistaren bat ematen digu Gandiagak; “Joxe Azurmendik ez dauka bere burua poetatzat. Pozik gelditu izango zan bere gogoko poeta-

lanari zeharo lotuta: baina “arrazoi-askogatik”, ez zen ausartu”. (Gandiaga, 1971:10).

Honela azaltzen du Azurmendik berak Lorea Agirrek “Zergatik?” galdetzen dionean:

Zergatik utzi nuen? Ba, lehenengo, konturatzen naizelako nire poesia egiteko modua Euskal Herrian espero denaren beste nonbaitetik doala. Eta, beraz, ez du onarpenik. Euskal Herrian ez du onarpenik, salbu lau lagunen artean, Gandiaga zaleen artean. Baina beste guztia beste bide batetik doa: Aresti, Lete... Beste mundu batetik doa. Arrazoi bat hori da, dudarik gabe.

Mundua laikoagoa eta sozialagoa izaten hasi da. Nire poesia soziala baino gehiago, soziala nahi baduzu, baita ere, baina antropologiko-existenziala zen. Hau da, pertsonari lotuagoa klase sozialari baino. Nire mundua beti hala izan da. Geroago ere bai. Eta nire gogoeta ere, nolabait, beti pertsonarekin eta pertsona horren komunitatearekin lotuago dago bere mundu ekonomikoarekin baino. Nahiz eta nik arrazoi guztiak dauzkadan mundu ekonomikoa ez ahazteko. Baita familiarengatik ere. Gure aita zena fabrikari hil zen. Hori ere ez da ahaztu behar. Istripu batean. Ni familia langile eta pobreakoa naiz. (...)

60ko hamarkadan, berriz, Europa berregin denean eta angustia existenzialak nolabait ahaztu direnean, Europa kapitalista horrekin konforme ez dagoen belaunaldi gazteago bat azaltzen da eta marxismo berri baten uholde bat sortzen da.

Nagusitzen ari ziren jarrerak ere erradikalagoak, iraultzaileagoak ziren. Ni bezalako batzuk, eta Txillardegiren bera ere bai garai horretan, “atzerakoi nazkante batzuk” bezala ikusita geunden. Abertzale, euskaltzale, erradikal guztien aldetik. Batzuek ez zuten horrela esango, beharbada hurbilago sentitzen zirelako neurekin pertsonalki. Baina, pentsatu, hori zen hemengo pentsamendua. Niri ‘Anaitasuna’ aldizkarian idaztea debekatu egin zidaten, “antimarxista aprioristico” izateagatik! Horrela zen. Eta pentsa, ‘Anaitasuna’ frantziskotarren aldizkari bat zen, eta debekatu egin zidaten han idaztea. (...)

Poesia uzteko bigarren arrazoia da momentu batetik

aurrera, konturatzen naizela honetaz: “Poesia egin nahi baduk, behar duk bizimodu bat hartu poesiarekin uztargarria dena. Eta bestela, nahi baldin baduk mundu intelektual batean, kritikiko izan eta teorizatu, utz ezak poesia”. Zeren biak ez baitira ezkongarriak. Bata, poesiaren mundu sortzailea libre da; eta bestea, alderantziz, erabat estua kontzeptuen mugaketan. Ez dira bat etortzen biak. Orduan utzi egiten dut poesia, eta saiakera kritikorekin bidetik noa. Uste dut horregatik dela. Dena den, batek bere burua auto-analizatzen duenean, kasik beti hanka sartzen du... Gaur daukadan interpretazioa hori da. Igual bihar beste bat daukat. (Agirre, 2014)

“Azurmendi adi-adi egon zaio beti irakurle-jendeak beregandik zer itxaron duenari. Ez atzoko eta ez biharko irakurlearentzat idazten dut nik” (Gandiaga, 1971:10-11). Garaiko jendeak ez badio entzun nahi... publikorik ezean... isildu egingo da.

Tamala, Juan San Martin-ek “Bi olerkari gazte munduaren orduan: Azurmendi eta Lasa” (1965) saioan Mikel Lasa eta Joxe Azurmenditaz dioena leituta.

Bi olerkari gazte dira Azurmendi eta Lasa. Beren mendearen semeak. Esan nai dut, beren mendearen maillan daudenak. Zergaitik, denok gera bakoitza bere adinean norpere mendearen seme; baiña ez guziok norperaren mendeko kultura maillan gaudenak.

Onekin ez dut esan nai olerkaririk onenak diranik, baiña bai onenak izatearen besteko garrantzizkoa dena: mendearen girokoa izatea.

Au ez da nik bakarrik asmatua. Gauza oietan guk baiña geiago dakien Cataluyniako olerkari ospetsua dan Bauçà adiskideak esana da. Euskal literaturari buruz egiten ari diran lan baterako bialdu nizkion ogeitamar euskaldun olerkarietatik, lau onenen barruan autatu zituan Azurmendi ta Lasa. Esanaz, munduko gaurko poesiarik onenaren antologia batean sartzeko bezelakoak zirala. (San Martin, 1965)



EGIA ESAN NAHI NIEN

Egia esan nahi nien / langileeri, / gazteeri, / ta
ez nuen indarririk. / Mundu osoari, / ta nire herri,
euskal herriari.

Egia esan nahi nien / etsaieri, / adiskideeri, / ta ez
nuen indarririk.

Gaur, desterruan, / egia ere galdu egin zait. / Ta
egiaren antsiaz / jarraitzen du herriak, / eta nik ez
dakit jadanik / zer dan egia, / hitz handi bat ez
bada, / ezta zein dan / nire herria ere.

2. GERRAOSTEKO HAZALDIA

Joxe Azurmendi txikitu eta berregindako euskaldun bat da. Beste asko bezala. Euskaldun bat, besterik ez, azken finean, sarritan esan izan duenez. Hori baino ez, baina hori dena, eta horrek dakartzan ondorio guztiak bere eginda. Zegaman, jaioterrian, ume euskaldun huts izatetik bere buruaren euskalduntasuna ukatzera iritsitakoa, eta hizkuntza berreskuratzearekin batera bere burua berreskuratu zuena. Beste batzuk bezala. Bere buruaren historia herri honen historia bera dela argi du. Eta hortik, bere ahalegina euskal mundua elikatuko duen pentsamendu propioa garatzeko. Alegia, zergatik puskatu garen eta nola berregingo garen hausnartzeko. Gu eta gure herria. Horren lekuko dira idatzi dituen liburu eta artikulu andana. (Agirre, 2014)

Horren lekuko bere poesia lana ere.

Azurmendirengan oso presente dago gerraosteko hazaldiko kide delako sentipena eta afirmazioa. *Hazaldia, Gerraosteko hazaldia, gure hazaldia, hazaldien arteko etena...* oso ohikoak dira bere idatzietan. Bere lana gerraosteko tes-tuinguru hartan abiatzen da eta bere bibliografia osoan beti dago garai haien memoria, azalpena, argipena, lanketa... Giro jakin hartan kokatu behar ditugu beraz, bere hitzak ere.

Mende hasieretako eta bi mundu gerren arteko krisi sakonean, europar kulturak, Europak berak, tope bat jo zuen, ordurainoko ziurtasun, egia eta harrotasunezko europar kulturaren oinarri zen metafisika mendebaldarrak eta bere enbor nagusi ziren Jainkoa, Gizakia eta Munduaren ideien ordura arteko ulermen eta nozioak kraskatu zirenean. Harrezkero, berriro hasi beharrean aurkitu zen. Eta sentipen hori da, giro

hori da gure 60. urteetan euskal poesia adoretzu plazaratu denean zegoen ingurumaria.

Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri izan diogu hondakinen artean bizitzea tokatu zaigula. “Gu puskailetakoak¹ gara”. Bonbardaketa edo lurrikara handi baten ostean gelditzen diren hondakinen artean bezalatsu. Puskatu aurretik, horren ziur, sendo eta handi ziruditenen puska eta eskonbruen artean galduta. Krisia, puskaileak, hauskorrak... Azurmendiren testuetan, jite horretako hitzak agertuko zaizkigu.

Iragana borratua, etorkizuna paper zuri bat oraindik, belaunaldi honek ahalegin handia egin beharko du egiazko historia –ezkutatua, ukatua–, bere herriaren historia bizia, h.d., hizkuntza, literatura, zuzenbidea eta tradizio politikoa, kultura guztia deskubritzeko eta ikasteko; eta ahalegin handia, une berean, hori transmiti diezagukeen kultura (esanahi txarreanean) “tradizionalista” gainditzen. (...) (Uste dut, halare, birresatea ez dela sobera egongo, etena, belaunaldi berriak, berak egin baino areago, nozitu egin duela. Euskal historiariik apenas ezagutzen genuen, ezta gerra zibilekoa ere: iraganik gabekoak jaio ginen!). (Azurmendi, 1998: 128)

Krutwig-en 1949ko “Bihotza” poema ezaguna (Paco Ibañez-ek eta Letek ere abestua), urte batzuk beranduago indarrez etorriko zen sentipenaren iragarle zaigu: *Mundua gezurra diotsu, bihotza.*

Ostean etorriko ziren Rikardo Arregiren *gazteriaren esnatze garratza* edota Mikel Lasaren *Oi gure denboraren desolamendua!* Belaunaldi honen lana, guztia erortzen ikusi eta gero, gerraosteko gainbehera moralean beren burua

aurkitu eta aurrera jarraitzeko modua topatzea izango da euskaldun gisa, gizaki gisa.

Aro berri bat hasi da sortzen derrotatik eta desenkantutik, fedegabetasunaren itsasoan jaio eta geratzeko. Esperantzak hil dira (“Itxaropena izena duen zital-lili haur!” madarikatzen du Mirandek). “Ezer ezaren samina” erostatzen ari da Joan San Martin “Otsalar”. Horixe da Leturia halaber: fede baten, esperantza baten, “lilura” absolutu baten iluntzea eta zuloa. Dena lilura hutsa izan da (...) Bestelako Euskal Herri baten esnatzea da –mendeetatik! (...) fedegabetasuna, desilusioa, noraeza, munduak gezurra dioenaren sentipena belaunaldi honetzat abiapuntua izan da, ez konklusioa (Azurmendi, 1998: 33, 68)

ESAIDAZUTE

Zer den galdetzen dut lana, / zer den justizia,
esperantza, / maitasuna. Zer diren gizonak.
Zer den aide argia, zer den / ogia, lur landu
biguna, / haurren heriotza, esaidazute zer diren.
Galdetzen dizuet guztioi zer den pobreen kulpa /
inoiz inork barkatu nahi ez duena.
Belaunbikaturik / dizuet galdetzen guztioi, /
arren, esan zaidazutela noiz / argituko duen egun
berriaren goiza.
Esaidazute zer den zerbait, / zer den edozer gauza,
esaidazutela.
Gezurak ta diruak / kutsatu gabeko zerbait zer den.

Honenbestez, jatorrizko kulturaren barne sostengua galdu duen herri baten adibide eta adierazgarri dira olerki hauek. Humanismo tradi-

zional eta berriago baten arteko hausketa urteen lekukoak.

Zeruen lekuan infernuak eta lurrak² non-nahi daude, etorkizuneko paradisu prometi-tuen lekuan lureko ez-paradisuak agertzen dira, txori kantuz ederturiko goiz argitsuak arratsaldeek ordezkaturiko dituzte, arratsalde nostalgiko, tristeek, promesa ziurren lekuan esperantza xume eta hauskorak, udaberririk ez da ageri, udazken eta neguak andana eta injustizia eta sufrimendu honetatik ihesa, atsedena, betirako loa, lo biguna eskaturiko dira.

“Tristura dario Azurmendiren poesiari” zioen San Martinek (1971). Ez zitzaion arrazoirik falta. Tristea da, mingotsa, hunkigarria, arrangura eta barne gatazkaz bete. Baina malenkonia fortzaturik gabea. “Inolaz ere ez dira irakurri eta lasai gelditzekoak, baizik eraginkorrak, zerbait pentsatzera bultzatzen gaituenak”.

Askotan esan da gure hazaldiagatik, belaunaldi galdua dela, belaunaldi errea. Oker ez banago Rikardo zenaren esaldiak ditugu. Ni neu ere sinistuta nago, halaxe garela. Gure aurretik bada belaunaldi bat, ajerik asko aurkitzen badiogu ere, gu baino askoz naturalkiago euskaldun izan dena, euskaldungoan sustraituago. Gure ondoren berriz ere beste holakoxe bat datorkeenaren esperantza dugu. Gu bien bitartean gaude, sustrairik gabe, euskaldun garen ebidentzia galduta, euskaldun garela nekez deskubritu behar izanda, gure euskalduntasuna dolorez landu beharrean, dakizun situazioaren umeak beti ere, ahaleginak egin arren. Sustrai gabeko arbola zaingabeak, situazio malkarrean hazita, laiotzetan, ezin fruitu mardulik eman. (Azurmendi, 1976:17)



HAU EZ DA POESIA

Hau ez da poesia. / Ez zaidazute, arren, / poesia
danik esan. / Euria da arbola hiletan, / ta orbel
tristeak parkean, / ta herriaren negarra, / jendearen
arduragabezia, / ta esperantzaren arratsaldea.

Ez zaidazute hau / poesia danik esan. / Ibai
lizunaren zubipetik doaneko / intziri hotsa da, / –ez
dut nik asmatu– / ta eskuotatik daridan / tristuraren
iturri zimela.

3. XX. MENDEKO POESIA KAIERAK

Azurmendiren poesia aipatzen den ia aldiro, oso maiz, Koldo Izagirrek, aipatu autoreari buruzko *XX. mendeko poesia kaierak* (2000) sarreran esandako hitzak ekartzen dira gogora. Besteak beste, hitzokin aurkezten du Azurmendiren lana Izagirrek:

(...) fraile besteko poeta, Arantzazutik beherantz dator, munduari buruz, zapalduaren kontzientzia edukiagatik Golgota batean bizi ez den herri horrengana. (...) Joxe Azurmendi du izena eta goi arnasaz itoa da, garbiaren garbiz eri. Oxigeno kutsatua behar du, hilkortasunaren bila dator. (...)

Azurmendiren poesiaren protagonista beti lehen pertsonan mintzo den ni bakarti hori da, egia establezituen aurka eta, ondorioz, Jainkoaren aurka ere matxinatua. Urrun gelditu da denboran hain hurbil zegoen Jainko asetzaile hura. Jainkozko beteak okitua ageri da poeta, problematizatu egiten du Goikoa. Ez ordea kezka teologiko gisa. Kontu eske ari zaiona sakramentuari gainez egindako Camus-en gizona da. Horixe izan nahi luke poetak, gizon bat, besterik gabe, ez baita 60ko hamarkada hartan hainbeste ugaldu ziren gizarte fedegaldutik erredimitzera doakeen misiolari "apaiz, langile eta gizon" haietako bat. Azurmendiren poesia Jainkoari berari oldartzen zaio, ez Jainkoaren irudi bati edo manipulazio bati. Ez du gizona salbatu nahi, gizon izatearen kondena pairatu nahi baizik.

Han eta hemen dira aipatuak. Hemen eta han Azurmendiren lan poetikoari argia eta azalpen egokia ematen diotenaren seinale.

Hamaika aldiz irakurriak izanagatik, berba horien atzean zer dagoen arakatzea jakingarria suerta daitekeelakoan, Kaierakeko esanak Azurmendirenekin jarriko ditugu elkarriketan, halako zubi lan moduko bat eginez.

3.1. ARANTZAZUTIK BEHERANTZ

Har dezagun bada Izagirrearen lehen zatia:

Fraille besteko poeta Arantzazutik beherantz dator, munduari buruz, zapalduaren kontzientzia edukiagatik Golgota batean bizi ez den herri horrengana. (...) Joxe Azurmendi du izena eta goi arnasaz itoa da, garbiaren garbiz eri. Oxigeno kutsatua behar du, hilkortasunaren bila dator. (Izagirre, 2000)

1951koa da Eusebio Erkiaga-ren “*Jean Paul Sartre'ren ardi galduak*” poema. Bertan, garaian ohikoa zen moduan, eta izenburuak argi uzten duen bezala, euskal gazteriaren galbiderako joera da mintzagai. Beren begiak eta bihotzak zerurantz bideratu beharrean zerriak bezala lurreko lokatzez zikintzen ari diren horien burutik egina salatzen da: “Ai gizaiso aundiok, argi-gabetuok, ilunez eta ustelez ez al duzue egin ok?”

Erkiagaren idatzia ez da baina salbuespen urte haietako Euskal Herrian, Orixek ere baditu antzeko pasarte ezagunak. Helduagoen gizarte tradiziozale, zuzen eta ordenatuan, euskal tradizio jatorretik desbideratzen ari zen gazteriak buru-haustek baino ez zekartzan.

Poesia ez da salbuespena izango, krisi horren lekuko eta adierazpide garbia baino. Poesiak mundura joko du, gizartera. Gizarte arazoan isla izango da. Hezur haragizko pertsonen aurpegia hartuko du, zapalduen sufrimendua agertuko, lokatzetan zikinduko da... Ordura arteko erlijio poesia xuria, goi arnas *garbia* gero eta gehiago alde batera utzita.

Memory Dump liburuko hitzaurrean Felipe Juaristik hau dio:

Para el citado E. Erkiaga, o para Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Salvatore Mitxelena, Iratzeder, Bitoriano Gandiaga, la poesía tiene sentido en tanto que sirve de acercamiento y comunicación con Dios. (...) Para Mikel Lasa o Gabriel Aresti la poesía tiene un rostro demasiado humano. A ellos no les sirven enteramente los modelos que les han sido transmitidos. (Juaristi, 1993:14)

Liburu berean, baina orain Mikel Lasaren ahotik, 1961eko Belok-en berak izandako elkarrizketa bat dakar:

Aita Xabierri erraten nion, behar dela realismo bat asmatu gure literaturan, bai nobelan nola poesian. Gure poesia zerutik hurbilago dagoelako lurretik baino. Eta hori zela eta, irakurri nion haren poemetatik aukeratu bertso hau. “Beste herriak odolez eraiki dira, Euskal Herria eraikiko da otoitzez” (gure artean esanda: irrigarria da frase hori), “realismo divino bat badela”.

Ez dakit zer esan nahi duen esaera horrek, erantzun nion. Neretzako ulergaitza da “realismo divino” delako hori. Ohartarazi nion, nola idazle berrien artean onenak (Aresti, Txillardegui, San Martin, Mirande...) beste tonu berri batean ari direla mintzatzen, beharbada Jainkoarengandik urrunago eta gizongandik hurbilago. (Lasa, 1993:104-105)

Azurmendiren poesia ere ur horietan dabil. Hobeto esanda, *lur* horietan.

LURRAREN SEME HONEK

Lurraren seme honek / ez dut nik izarren doinua /
inoiz entzun. / Lurrekoak denak / lurra entzuten du.

Gure aurtzaroak / ez zuen aitaren bertsoak / beste
soinurik. / Ez zuen inoiz kantatzen gure amak.

Beraz, nire poesian ez dago / ilargirik. Ez zen / nire
sehaskara hurbiltzen. / Gerra ostean zen...

Nire poesian / haizea kableetan zingurinka / entzuten
da, / aitak lantegira joatean / uzten zuen atearen
intziria, / ta etxearen bakardadea, / ta euria lehioan.

Kalean lotsa zen / umearen lotsa / entzuten da nire
poesian.

Aizkorondoko bisutsa, / ta oinaztarra.

Jendea entzuten da / nire poesian, / jende pobre
bat. / Eta aitarentzat ur bila ni joaneko iturriaren
hotsa.

60ko hamarkadan euskal poesia gaurkotze-
ko esfortzua egin zutenen idatzien artean gizarte
arazoak, kezka existentzialak eta erlijiosoak
batera aurkezten dira, bana ezinezko korapilo
bihurria osatzen dute. Hala da Azurmendirenean
ere. Jainkoa oso presente dago, kontuak eska-
tzeko bada ere. Motibo erlijiosoak nonahi daude,
erlijioaz ez diharduen olerkietan ere.

Belaunaldi honek Jainkoaren esperentzia bere-bererik bat
egin badu, Jainkoaren urruntasunarena da, Jainkoaren isilta-
sunarena. Sekula ez da Jainkoa gure artean hain agirian ibili.
Irudietan batik bat. Itxuretan. Bizitza publiko guzia Jainkoaren
izenean egiten zen. Halare, Jaungoikoak ihes egin du gazteon-
tzat. (...) Ez du erantzuten. Hutsa dago. Izan ere, zein situazio-
tan bizi da gazte hau? Herria txikiturik. Ezin asma nora jo.
Herioan dabil gazteria hau. Baina, are bistanago eta urrutiago
Jaungoikoa. Ezkutatu egin da, isildu egin da. Utzi egin gaitu.

Aldi hartako literaturan, Jainkoaren urruntasunaren zantzu asko gelditu da. Jainkoaren bila joan dira poetak ilunetan. Ez dute aurkitzen. (Azurmendi, 1978:70)

Esandako azken hori osatze aldera:

Mas ninguno de ellos es o se considera ateo. Ninguno de ellos lo elude. (...) El sentimiento religioso de la poesía vasca no es gratuito. En un mundo cerrado como el vasco no hay demasiadas alternativas. O se levanta la vista hacia el cielo o, si no, nos vemos obligados a dirigirlo a nuestro interior. (...) Deberá pasar tiempo antes que la poesía vasca vaya abandonando, como si fuera un vestido raído, toda carga religiosa. Deberá crearse otro lenguaje, que revestido de ironía deje a Dios en su lugar: alguien que no influye en los destinos humanos.” (Juaristi, 1993: 14-15).

Jainkoaz ari garela, bada bereziki aipatzea merezi duen poema bat. *Olertin* argitaratu zuen bere lehen poema, “Poema beltzaren arbola”. San Martinek kontatzen duenez, *Olerti 63*an irakurri zuenean, sekulako zirrara eragin eta “urri ematen den poeta on baten aurrean nintzela nabariturik” idazlea nor zen galdezka *Olertiko* zuzendariari deitu omen zion, Otaegiz izenpetua izaki, bere bigarren deitura, ez baitzekiten nor zen oraindik.

POEMA BELTZAREN ARBOLA

Uhinak hondar tristean / ahantzi duten txirla baino
tristeago. / Ez dakit non dudan galdu / fede gozo
haren gozoa, / ez dakit non dudan galdu.

Ai, umetako fedearen sinesmen bigun haren
misterioa...

Jaurtitzen zaitudan fede, / amagandiko arnas triste, /
adio betiko. / Zurekin bizi naiz triste, / areago
menturaz zu gabe! / Adio betiko, fede adiskide.

Aurren-aurrenetariko poema du hau, 1958 ingurukoa edo, baina urteak aritu omen zen hura lantzen. Honek ere, hasieran hiru forma ezberdin zituelarik, euskarazko, erdarazko eta frantsesezko atalekin. Asaldura handiak sortuko zituen inguruan argitaratua izan zenean.

Koaderno oso batean ari da Azurmendi Jainkoarekin borrokan, Jainkoari deika, hari itauntzen, kontuak eskatzen, ...ez dio erantzuten baina. Fede zaharrak galdu eta bide berriak bilatu eta urratu nahian, sinistu nahi eta ezinean, lerroak eta lerroak, beste horrenbeste harekin haserre, oldar-turik. “Zein ordu da, zein ordu? / Joan ezkeroz, Jainkoa / itzuli ez denekoa.”

Zenbait urte beranduago, 68an datatua...

OTOITZA

Zu bezain ahaltsu banintza ni, / Jauna, ez litzake
munduan / tristurarik izango, ez litzake / ume
itsurik jaioko, / ez litzake maitasuna nekatuko, / ez
litzake ilunbea triste izango / eta tristeago argia, /
eta ni Zu bezain ona banintza / onago izango
nintzateke Zu baino; /

(...)

Ez zan mundu hau holakoa izango, ez / (...)
Zure begiak balira nireok, Jauna, / harri batekin,
aizto batekin, lotsa batekin /
itsutu nahiko nuke beharko nire begiratu zurea.
Baina ezin, baina inola ezin.
Aingeru bat egin baninduzu behintzat / nire hegoak
norbaiti emanda hiltzeko...
Baina gizon. Eta nork nahi du gaur
gizon bat ezertarako.

3.2. CAMUSEN GIZONA

Kontu eske ari zaiona sakramentuari gainez egindako Camus-en gizona da. Horixe izan nahi luke poetak, gizon bat, besterik gabe, ez baita 60ko hamarkada hartan hainbeste ugaldu ziren gizarte fedegaldu bat erredimitzera doakeen misiolari “apaiz, langile eta gizon” haietako bat. (Izagirre, 2000)

Azurmendiren pentsamenduan ahaztu ezinezko izen bat da Albert Camus.

Camus izan zen gu guztion maisu handi bat urte haietako literaturan hain zuzen. (...) Garai hartako izpirituaren espresio bat hartzekotan, bada, hezi eta eratu gaituena, guretzat “liberazio” bat signifikatuz. (Sartre edo beste asko ezertan gutxietsi gabe-Unamuno bera ere!) (...) kontzientzia maisu miretsi eta maitatu bat izan zen gerraondoko gazteriarentzat. (...) gizatasun paregabea goratuz, ideologiaren eta Alderdien gainetik beti “gizonaren eskubideen alde” (Arestik berea egin eta gogotik erabiliko duen espresioa zen hau; eta ez da esamolde batere marxista).

(...) Camusen obran, etxean eztabaidatzerik ez zegoen ideia guztiak aurkitzen ziren, misterio gabe lasai-lasai azaldu

eta jorratuta: frankismoaren kritikarekin, komunismoaren kritikarekin, demokraziaren kritikarekin, dena libertate freskoenez. (...) Demokrazia, iraultza, bortxa: gaintxuriturik gabe eta santukeria gabe erabiltzen ziren problema guztiak, eta ez zen ematen eskolako soluzio bat, arazo bakoitzaren errezeta modura, baina izpiritu bat irakasten zen orohar eta bizitzaren filosofia bat –“inolako metafisikarik gabe, inolako sineskerarik” nahasteke: doktrinarismoaren arrastorik ez!– arlo guztietan bakoitzak nola ibili jakiteko. Soluzioa ez dakigu. Dakigun bakarra da, zein izpirituekin beti jokatu. *L'homme révolté*, 1951 (gaztelaniaz irakurri nahi zuenak Argentinatik lortzen zuen kontrabandoan) tribunal aurrera deitzen dira XX. mendeko desastreetara ekarri duten ideologia eta Eliza eta utopia denak, denak berdin kondenatuak uzteko. Liburu hau Frantziako Iraultzaz gerozko pentsamendu europarraren epaiketa bat da (...) Moderniaren kritika erradikal bat. (Azurmendi, 1998: 34-35, 41)

Camusen gizon matxinoak, erreboltatuak EZ esaten du. Ez establezitutako egiei, Ez kanpotik ezarririko kate eta mugei. Ez esatea izateko modu kontziente bat bihurtzeraino. Lehenengo dena desegin beharra, ikasitako dena, esan dizuten dena, sinetsi duzun dena, gizakiaz, bizitzaz, heriotzaz... gero dena eraikitzen hasteko.

“Zer da gizaki matxinatua? Ezetz esaten duen gizakia”, esplikatu du Camusek. “Diguem no”, kantatzen zuen Raimonek. “Ez, ez, ez: ez dut nahi / holako zibilizaziorik!”, berak abestu du irakurleak seguru asko. Brechten “Ezetz esatea” (tradizio sakratuenak birpentsatuak izateko daude!) (...) Belaunaldi honentzat ezetz esatea –esan beharrak– eduki zuen esangura hertsakorra ezin ahaztu dugu. “Ez da ezer ez da egia / kontra nagona naiz / kontraren kontra / eta inor ez dago nere alde”, erreparetzen zion bere buruari Mikel Lasak. (Azurmendi, 1998: 55)³.

Ezetzak nagusi. Baietzak kontrara ez asko eta direnak ere behin-behinekoak eta txikiak. Denaren gaintetik bilaketa nagusi. “Ezetz, ez

da izan uko hutsa, bide berrien bilaketa libreari baiezko kuraitsua baizik” (Azurmendi, 1998:57).

Berreraikitze, berraurkitze horretan, Azurmendik gizakiari bere lekua eman nahi dio. “Gizon bat, besterik gabe, horixe izan nahi lukeela poetak”, zioen Izagirrek. Erljioek, historiak, ideologiek gainjarritako kateetatik aske. Gizakia, ez gehiago, ez gutxiago. Ez deabru, ez aingeru. Ez santu, ez gaizkile, ez heroi, ez...

Bere anbiguetate guztian gizaki.

PROMETEO MIXERABLEA

(heroikoa ez zana)⁴

GIZONA mixerablea da / gizon izaten hasteko /
eskubideen deklarazio bat behar badu.

Gizona ben benetan mixerablea da, / Jainkoaren
errebelazinoak / egia izateko Eliza bat behar badu /
zaintzaile.

Zer haiz ba! ez zekiagu / begiz begi batak bestea /
begiratzen-eta. /

Naturelezaren hiltzen doan / kreatura, / gizona.

Hi— esaten diat. / Ze ni ez nauk konzeptu bat, /
ez nauk gizon. / Ez zaidakean definizio batek /
esistentzia eman.

Neu bakarrik nauk, / sahets guztietatik ebakirik.

Garaiko filosofiak pertsonarenganako hurbilketa eskatzen du, banakora gerturatzea. Bizi ahal izango den pentsamendu bat behar da, eta ez, hezur-haragizko gizakia espekulazio abstraktuetara murriztuko duen beste bat gehiago. Kontzeptu hutsal handi eta orohartzaileek ez diote gutaz ezer. Gizatasunak, Gizakiak ez du existitzen, han eta hemengo gizaki konkretu partikularrak existitzen dira. Ez dago unibertsalik, gizakia ezin baita izaki atemporal moduan ulertu eta esplikatu. Denbora, toki eta zirkunstantzia zehatz batzuetan haragitutako pertsonak existitzen dira.

Baina horretaz gain, “Gizona abere bat da... baina ez du hori aitortu nahi”:

Mitoak beti besterik sines arazi izan dio gizonari. Besteak beste, iraultzaren mitoak ere bai. Eta erlijioak, filosofiak eta ideologiak eta, sarri, zientziak ere, gizonak bere buruari besterik frogatzeko ahaleginak ziren. Beraz, gizona, abererik ez dela sinetsi nahi lukeen abere bat da. (Azurmendi, 1975a: 13-14)

BIZITZAREN ARBOLA BELTZA

Goian izarrek bizitza zuri, / aztoreak mendian
harkaitzezko.

Gizonak, aldiz, munduan / bizitza gizonaezko.

Hain da gizona gizon...

Gizona abere hutsa da (1975) eta *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991)⁵ bereziki gai horiek jorratzen dituen bi liburu dira. Honela justifikatzen du liburu haiek idatzi izana.

Bai, hiru gauzari erreakzio modura idatzi nuen. Bata, psikologia konduktistaren aurka. Bigarrena, nik heredatu nuen katolizismo tradizionalaren aurka, obligatu nahi izan gintuena aingeruak izatera, eta ez abereak, eta esan behar ziguna baina esan ez ziguna zera zen: “Beno, aberetxo bat haiz eta orain kontuz. Orain saiatu hadi bidean ibiltzen. Baina ez hadi saiatu aingeru izaten, ze estupidokeria bat da”. Eta hirugarrena, une hartako marxismoaren aurka, eta pedagogia eraldatzailearen aurka. “Gizona abere hutsa da, eta errespetu iezaiozue hori mesedez, ze hortik hasi behar du gizakiarekin egin nahi dugun edozein proiektu”. Orduko marxismoak gizon berriaren ideia prometatzen zuen. Zergatik jarraitu behin eta berriz esperantza horrekin?

“Lurrekoa izan eta beti zerura begira dabile-naren patu kontsolagaitza!” dio hasperenka.

ASPER ASPERTUTA

Asper aspertuta nago gizona / Jainkoaren
amoregatik maite dutenez.

Jainkoaren amoregatik / laguntzen dutenez, /
Jainkoaren amoregatik / gaixoak osatu, / pobreeri
egueriz eskupekoa eman, / igande arratsez eri
etxera joan, / kanposantuetan loreak jarri.

Umezurtzeri erropatxoak banatu ere / Jainkoaren
amoregatik.

Gezuraren egia / sinisteko grina!

Ta behinere ez / gizonaren amoregatik.

3.3. ZERUKO ETA LURREKO JAINKOEI OLDARTUZ

Azurmendiren poesia Jainkoari berari oldartzen zaio ez Jainkoaren irudi bati edo manipulazio bati. Ez du gizona salbatu nahi, gizon izatearen kondena pairatu nahi baizik. (Izagirre, 2000)

Azurmendi Jainkoaren ideia guztiei oldartzen zaie, zerukoei eta lurrekoei, bere poesia lanetan eta geroko idatzietan ere.

Zapaldu eta lotzen gaituzten Jainko handi eta jainko txiki, ezagun eta lehen bistazoan ikusten ez diren horiek ere seinalatuko ditu bere jardunean eta haiek borrokatzen ahalegindu. Aske nahi du Azurmendik gizakia, hala euskalduna ere. Eginahal horretan gizakiari soinean jarritako estalki ororen historikotasuna eta probisionaltasuna agerian uzten saiatuko da, egia handienak ere noizbait eraikiak izan zirela gogoraraziz.

Izan ere, koherentzia intelektuala gorde nahi duenak ezin baitu Jainkoaren ideia ezeztatu eta berekin estu-estu datorren kultura eta iruditeria europar, moderno guztia ikutu gabe utzi.

Alegia, metafisika tradizionalaren gainbeherarekin europar tradizioaren oinarriak arrakalatu dira, Jainkoa ez ezik, gizakiaren irudia bera ere zartatuta lagaz. Trago mikatza mikatzik bada, Jainkoaren begikoa eta aukeratua izatea sinetsita duenarentzat, jainkorik gabeko mundu batean animalia soil bat gehiago izatera pasatzea. Kolpean, pitzadura batek bestea ekarriz, mundua ere aldatu egingo da, lehengo ontologia eta epistemologiak

zaharkituak utziz. Eta nola ez, Morala. Markatutako ordura arteko moral bakar baten ideia behin kras-katuta, gizartea oso konplexu bihurtuko da. Askoz ere zailagoa. Aldez aurretikako on eta txarren arteko muga deseraikitzean, eguneroko bizitza ere nekagarri eta lausoago bihurtuz. Azurmendik ondo daki hau eta hala tankeratu du bere lanean.

Ez da ageri gizakia salbatuko duen hastapen berririk bere poemetan. Ez dator fedegabeziaren egurats gorritik erredimitzera. Ez dator gizakiari jainko bat kendu eta beste bat saltzera. Ez dator salbatzera. Ez baitu salbazioan sinesten. Ez behintzat zeru, eta bukaerako paradisuetan, ez dena zero-zerotik hasiko den egun batean, ez gizaki berri-berri bat etorriko denaren fedean, ez garai haietako optimismo historikoak berekin zekartzan iraultzaren ametsetan. Guztiak ere, atzean utzi nahi den modernitateko ideiez blaitutako asmo zaharrak baitira jantzi berriz jantzita. Zerukoak ez akaso, baina lurreko Jainkoak.

Nik, beharbada, fede gutxi eduki dut gauza guztietan. Eta iraultzan ere bai. Fedea falta zitzaidan. (...) Nik esan nahi nuena zera zen: “zuek iraultza egin egin ezazue, baina egin ezazue kontu gizonak gizona izaten jarraituko duela gero ere”. Hori esatea da, pixka bat horrelako eszeptizismo batekin. (Agirre, 2014)

Gandiagak ere hala zion *Hitz Berdeak* liburuko hitzaurren, “kezkatu ta eskeptiku izatea dela Joxeren jatorrizko pekatua”.

Gizona eskeptiko bilakatu da bai bere buruaz eta bai sortu duen zibilizazioaz. (...) Nik uste, berrehun edo hirurehun urtetako optimismoak gizona nekatu egin duela. Egungo gizona optimismoaz nekatuta dagoela. Izan ere, xede guzti horiek hiritar guztien eta bakoitzaren izugarrizko enpeinua

eskatzen dute. (...) Gizatasun garbi orbangabekoa. (...) gizonaren beraren aldakuntza radikala eskatzen du, “konbertsioa”, nolabait. (...) Egitamuen berritasunak, gizon berririk gabe, ez duela asko balio ikusi baita.

Haatik ere, “gizon berrian” sinestea ez da erraza. (...)

(...) mundu ikuskera, gizonarekiko optimismo radikala (...) guztiz klasikoak dira Ilustrazioaz gero. Baina honez gero bidezko ahal irudipen eta optimismo haiekin segitzea? (Azurmendi, 1975a: 5, 10)

Honi lotuta, Mikel Zaratek bere 1977ko *Euskal Literatura* lanean ederki identifikatu zuen Azurmendiren joera hau. “Azurmendi ta euskal topiko bat” atalean, izenburuak zioen gisa, Azurmendiren poesia ulertzeko ezinbesteko giltza bide zen euskal topiko bat zekarren. *Bagenu eta balitz* izendatzen zuen topikoa.

Balizko oleak, burdinik ez 1596ko errefrau sorta batean agertzen omen da lehen aldiz. Gerora, aldaera ugari ezagutuko zituena Euskal Herriko txoko desberdinetan; *balizko errotak irinik edo urik ez*, etab. Euskal pentsaeran arruntzat har genezakeen eta beste literaturetan horren ugaria ez ei den ideia hori gabe Azurmendiren olerkia ezin omen da ganoraz ulertu.

Eta urak, ur berdeak itsasoa bezala
eta urak, ur handiak itsasoa bezala.
urak itsasoa bezala
bete-beteko du askatasunak oparo
euskal lurraldea.

Lehen irakurtaldian, laster izango dugula askatasuna Euskal Herrian esan gura duela uste daiteke. Baina izenburua BIHAR da. Tituluak du indarra, hark ematen digu olerkia ulertzeko gakoa. *Bihar* horrekin *bagenu* eta *balitz*-en topikoan sartuz poema, gaur ez den betiko bihar baterako uzten da askatasunak Euskal Herria beteko duen eguna.

“Bagenu eta balitz topikoaren zauriak minduko ez balu, isilduko litzateke; beste giro bat, beste egoera bat balego bere inguruan...” (Zarate, 1977:45) gehitzen du Zaratek.

Ildo berean:

SUAK ERREKO EZ BALU

Suak erreko ez balu / ta euriak busti ez. / Negarrik
ez balitz / ta arratsaldea / gauak itoko ez balu. /
Pobreek lurrik balute / ta lurrak maitasunik, /
ta esperantzarik zaharrek. / Justiziarik balitz / ta
herriak sofritu ez, / gustora bai, / ixilduko ginake /
ta – zenbat da? / beste kopa bat.

Eszeptiko ez ezik, Joxek bere burua definitzeko usu esan izan du pesimista aktibo bat dela.

Eszeptikotasunaren edo erlatibismoaren uretan igeri dabilenak ordea ez du zertan noraezean dabilen enbor alderraiari heldu. Erlatibismoa ez

da noraeza, eta eszeptikotasuna edo pesimismoa ere ez dira errendizioa. Pesimista eta aktiboa aldi berean izateak dakartzan neke eta emankortasun guztiakin, zera dio: “Debekaturik gelditzen zaizkigunak, utopia merke eta gaiztoak dira; ez esperantzak (...) Utopia ez da utopismoa” (Azurmendi, 1975b: 160). Azurmendiren hitz eta idatzietan ez dago konformismorako deirik, txanpon beraren bi aurpegi banagaitzat ulertzen dituen askatasun eta konpromezuarena da bere mezua.

Bere *Iraultza Sobietarra eta literatura* (1975) liburuan badago egoki datorkigun atal bat “Kapitulu bat tartean: euskal poesiaren iluna” izenekoa. Luze izanagatik, kapitulu horretako zenbait pasarte hona ekartzea merezi digu:

Azkeneko bolaran “defentsiban” ari naizela, “negatibuegi” jokatu dudala, batek baino gehiagok egotzi dit neuri. Akusazio hori eskusarik gabe onartzen dut (...) gauza guztiak bezala, defentsiban aritzea eta negatibuegi jokatzeari ere anbibalentea iruditzen zait. Momentuak horixe agintzen badu, negatibu izatea da, lizentzi dugun jokabiderik positibuenaren (...)

Lehenengo begiradan, gainbehera goazela ematen du. Esperantza galdu dugula. Gauzak aldatzeko, burrukatzeko, konkistarako, indarrak gastatu zaizkigula. Kemena galdu. Ametsak itzali. Potto egin. Horrelako zerbait ere egon daiteke. Baina egiantzekoago eta egiazkoago iruditzen zaizkit beste azalpede batzuk.

Esperantza eta amets errazegietan sinestea zail bihurtu da. Esku biek in ilargia harrapa genezakeela uste genuen. Tabu guztiak apurtu, sexu arteko diferentziak xahutu, klase gabeko gizarteak eraiki, langileak nagusi jarri, langileon kultura berezia eta artea asmatu, aberria askatu eta dena batera. Egiten genuen gauzatxo bakoitzak mundu guztiaren eta problema guztiaren konponketa osoa izan behar zuen. Gero, urrats bat, urrats bat besterik ez dela ikasi beharra egon da. Eta urratsak

bana-banaka eta astiro astiro bakarrik ematen direla. Etsipena, hortakoz, errealismoaren ataurrea izan liteke. (...) Promesa handiegien ondoko eskeptizismoa agiri-agiriko gauza da. (...)

Burrukarako eta lanerako gogoia galdu denik, ezin esan daiteke. Pesimistaok “pesimista aktiboak” dira eta ez langile zuriak, eskuak tolestaturik. (Azurmendi, 1975b: 84, 95, 97)

GIZONAK SUA PIZTEN

Gizonak sua pizten
asmatu zuen bezala
euskaldun poetek
asmatuko balute
egia pizten
eta esperantza!



4. MANIFESTU ATZERATUA

Azurmendiren poemarik aipatuena, ezagunena eta garrantzitsuena ordea, askoren iritziz “Manifestu atzeratua” da. 1968ko *Olerti* III-IV-an argitaratua eta ondoren, *Hitz Berdeak* liburuan zentsura zela eta, beste poema batzuk bezalexe ezin izan zena argitaratu. Manifestuaz dihardute-nek, gaurkotasun handia duen testua dela errepikatu ohi dute, eta ez zaie arrazoirik falta.

Hitz Berdeakeko poemetan, geroago etorriko ziren saiakeretan jorratuko zituen ideia ugari, (batzuetan ahalge oraindik, beste batzutean ausartago) ageri direla aipatu dugu. Hala bada, “Manifestu atzeratua”, gutxiago ala gehiago, Azurmendiren pentsamenduaren konpendio bat dela esango nuke, konpendio oso lortua gainera. Han daudela gero etorriko denaren belar printzak, ezin zehatzago, indartsuago eta ederrago adierazita.

Beste behin ere, *Jakineko* elkarrizketa mamsutik tiraka, hara zer dioskun bere poema ezagunaren harira:

Nire borroka, alde batera, euskaltasun baten kontra da, eta bestaldera, euskaldunak ulertzeko modu espainol baten kontra. ‘Manifestu atzeratua’ ere lerro berean dago. Ni euskaltzaletzen hasten naizenean, euskal gaiak irakurtzen, eta euskal kontzientziara iristen naizenean, euskaltasuna identifikatzen da nirea ez den euskaltasun batekin. Niri irakatsi zaidan edo zabaldu zaidan euskaltasun hori beste bat izan da. Lizardi irakurrarazi didate, eta haren natura deskubritu dut, baina beste natura bat da, rurala bai, baina, beste begi batzuekin ikusitako ruraltasuna. Alde batetik dago, beraz, euskaltasun bat jasangaitza zaizuna, eta neurri handi batean EAJrekin identifikatu dena. Gaur egun ez dut uste horrela

denik, baina gure garaian hala zen, euskaldunak horrekin identifikatzen ziren. Bestetik, Jose Artetxeren liburu asko irakurri nituen, ‘Zein ziren’, ‘Urdaneta’, ‘Okendo’... Badauka dozena erdi bat liburu euskaldun ilustreri buruzkoak. Deskubritzen duzun unean, “hara, gure handitasunak dira!” sentitzen duzu. Baina, berehalaxe, kontzientzia hartzen duzunean, zera esaten duzu: “Baina hau euskaldunaren uko bat da! Alegia, goratzen ari zaizkit euskaldunak ez diren guztiak!”. Eta orduan erreakzio bat dator euskaldunaren harrokeria horren eta goratzearen kontra. Euskaldun errealak gu gara, nola idatzi ez dakigunok, idatzi nahiko genukeenok eta ez dugunok erdaraz idatzi nahi, langileak, eta ez burges txikiak hauek jada erdaratu baitira, eta abar. Alegia, euskaldun erreala, hain zuzen, zuek bazterrera uzten duzuen hori da. Beraz, erreakzionatzen duzu euskaldun erreala baserritar horrekin identifikatu dutenen kontra, eta berdin, errefusatzen dituzu euskaldunen harrokeriak goratzen dituzten horiek. ‘Manifestu atzeratua’ ere horretara dator, eta kasik zuzenean Artetxeren kontra doa. Artetxe aipatzen dut, baina Artetxe bezalako autore asko zegoen orduan. (Agirre, 2014)

Irakurri berri ditugun hitz hauekin lotuta, benetan aipagarria da Ignazio Aiestaran-en *Munstro Abertzalea* (2003, Elkar) liburuko Azurmendiren epilogoia. Bertan, 60ko hamarkadaren bueltako belaunaldi gazte haren beste kapitulu jakingarri bat kontatzen du. *Manifestu atzeratuaz* esandakoarekin eskutik datorrena.

Orri haietan, Sédar Senghor, Aime Cesaire, Albert Memmi, Franz Fanon, *négritudearen* inguruan ibilitako polemikak, Bigarren Mundu Gerra ostean etorritako deskolonizazio prozesuak ekarritako eztabaidak eta haien bueltan gure inguruan ibilitako gorabeherak dakarzkigu.

Zer egin behar zuten estatu afrikar berriek? Europako kultura kopiatu? Europar mentalitate, balio, iruditeria, historia eta abarrak berenak

balitzaizkie bezala jarraitu? Kanpotik ezarritako eredu bati begira, beti atzetik, beti ezin iritsita, beti bigarren mailako... Metropolien onespene eta onarpena jomuga, xurien gustuko izango diren balentria, handitasun eta izen handien bukaerarik gabeko marketing zurrunbiloan sartu? Ala moztu. Diferentzia onartu. Kultura europarra, hitzak berak dioen moduan afrikarrena ez dela aitortu. Abiapuntu propioak aldarrikatu. Beren buruez ordura arte besteek esan dietena ahaztu eta beraiek beren burua berrinterpretatu. Eta *kultura ofizial* horretatik at, *munduko zibilizazio aukeratu*en historia famatu europarretik kanpo baina aske ulertu beren burua?

Kilometrotan urruti, zenbait bizipenetan ez hainbeste, eztabaida guzti hauek 60-70. urteetan euskal gazteria ezkerzalean eragin handia izan zuten.

Aipatu epilogoko gogoetok ez dira isolatu edo salbuespen Azurmendiren idatzietan. Herri xehea, jende arrunta, “bazterrera uzten den euskalduna” eta “ideologia nagusien”, “kultura ofizialaren” handinahiaren arteko ezin uztartua konstante bat da bere lanean. Noiznahiko lanetan gai honekin loturiko antzeko adibide eta aipuak xerkatzen hasteaz, zareak bete ahal izango genituzke.

“Manifestu atzeratua”, saioan orain arte aipatu ditugun ideia guzti horiez gain, eztabaida eta buruhauste hauetan dabil. Aipatu dugun belaunaldi zafratu, hautsi, puskailetan galdu eta

bere burua ahal zuen moduan berregin behar izan zuen harengan. Euskaldun izatea nahi, euskaldun gisa bizitzea amets eta nola egin ezin asmatuta dabilenarenean. Erantzun baino galdera gehiagorekin, errealitateak berekin dakartzan arantzei bizkarra eman beharrean, haietaz gogoe-tatzera libre ausartzen den baten gogoan. Inoiz inork barkatu nahi ez duen pobrearen kulpa zein den oraindik ezin asmatuta dabilenaren minean. Bila dabilen batenean.

MANIFESTU ATZERATUA (1968)

Panfleto bat idatzi nizun. / kondenatu nahi
banauzu / injustiziarik kometa ez dezazun.

I

Gure herriak ez dauka kondairarik. / Pobrea da.
Ez dauka / pirata koxkor pare bat, / langille sofritu
batzuek, / muga zentzugabe asko, / milla zorigaitzo /
besterik. Ez da gutxi. / Euri gortina batek ixten
du / gure kalendarioa. / Ez ba billatu kondaira
unibersalen / liburu handietan gure inperiorik.

Aginako zero bat zan / gure inperio guztia.

Ta euskalduna konforme zegoen. /
Ta libre izan nahi zuen. / Bainan libre izatea /
gauza ikaragarri zailla da / Marx bat /
edo 1789 bat izan ez duen / herri
zorigaiztokoarentzat. / Zerekin pagatu behar du?

Ikaragarri zailla da. / Ze guk ez daukagu /
pirata pare bat, langille on batzuek, / muga txar
gehiago eta holako zerbait /
besterik. Kalderilla utsa.

Baina libre izan nahi dugu, / zer kulpa daukat nik. /
Eta txeke zuri faltso baten antzean /
Gernika-ko arbola bat asmatu diguten arren, /
libre nahia pekatu balitz bezala, / aitzakiren bat
beharko bagenu bezala, / guk, guztiz xingle, libre
izan nahi dugu. / Nahi dugu, besterik ez. / Hauxe
baita gure engainu azkenekoa: / libre izan nahia
justifikatu behar dugula / pentsarazi digute /
lehen kanpotik eta barrutik orain.

Eta San Inazioaren, Xabierren, Txurrukaren, /
ta Elkanoren ta Habeas Corpus-en / eta nik dakit
noren / gomendio guztiak biltzen / eta banatzen /
saiatu zaizkigu gure kausaren / abokatuok. Libre
izateko / inoren baimenik beharko balitz bezala. /
Herri izateko inoren gomendiorik beharko bagenu
bezala. / Horiek libertaderik / ekarriko baligute
bezala. / Ta ez horiengatik, ezpada / guzti horien
kontra / nahi dugu libre izan, / kondaira
guztiaren kontra.

Oi, libre izatea eta handi izatea / nahasi diguten
gureak! Libertatea handitasunarekin / edo
kondairarekin / edo ta agian norbaitek (oi, bi aldiz
gaixo!) / moralarekin / defendatzen digutenak!

(...)

III

(...)

Baina libertatea ez merezi, / irabazi egin behar
da, / ez kondairaren, ezpada / gizonaren eta /
etorkizunaren aurrean. / Ta gure herriak ezin du
irabazi.

Ta ezin irabaziko du ere, baldin eta / gure
filosofoek ikasten ez badute / ez duela eguna
erlojuak egiten. / Baldin eta teologoek gizona
ez dala / elizako alxia edo serafin bat / edo
parabola bateko ardia ez badute ikasten. / Edo
zeruko bidea gotikoa dela pentsatzen badute, /
ebanjelioak aldapatsu dena diolako. / Baldin
gure radikalak radikalinski badira. / (Lainoa da
euriaren radikalitasun gutzia, ez trumoa). / Edo ta
gure ibarrak Arkadia dirala uste badugu, / ta gure
errealistak garaiz aurkitzen ez badute / errealistago
zala Printzipea Machiaveli baino, / eta Jesukrixto
bainoago Judas, / ta errealitatea Marx dala ta ez
aren liburuak, / eta Iparragirre ta ez kitarra. / Baldin
gure herriak ikasten ez badu / Gernika-ko arbola
aritz normal bat zala / (aritzak ote dira ba behar
ditugunak!) / ta euskal herria edozein herri bat. /
Ta gure langilleak ikasten ez badute / gizon dirala
ta ez kasta sakraturik / ezta madarikaturik ere, / ta
euskal nekazariak enteratzen ez badira / aspaldian
hil zala Virgilio / (edo nekazarien ardura dutenak,
zeren eta zer kulpa dute beste horiek jaio zanik ere
ez badakite) / ta gure poetek ta idazleek ikasten

ez badute / izkuntza ez dala Orfeo-ren flauta. /
Ta nafarrak enteratzen ez badira / bi Nafarroa
daudela, / onezkero hiru eta lau ez badaude /
eta eta eta / (etcetera esan nahi dut noski) / zahar
eta berri ta denok bat / Erromako zubi koloretsu
batean.

Orduan bai, eguzki zaharrak / argi berria emanen
du. / Astronomoak ez dira enteratuko, / ezta
eguzkia bera ere, / baina gu bai. / Eta nahikoa
dugu hori.

Hau guztia esan ta gero / ez da faltako oraindik /
ez dugula maite aberria / botako digunik.
Aberriaren maitasuna / (goizeko ordu bietan ari
natazazu idazten) / poltsikoan eramango balitz
bezala.



1978an *Agiriak: Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez* liburua argitaratu zen. Bertan, garaiko zenbait poeta eta artistak Arestiren heriotzan hari idatzi edo egindako lanak bilduz. Joxe Azurmendik ere hartu zuen parte ekimen hartan. Honatx berea:

BERROGEI URTE HONETAN

Hator, lagun. Konta izkiguk / umetako gerra
kontu haiek. / Urbasa, Artxanda, Santoina. /
Konta zaiguk zenbat hil ziren, / nola hil ziren. /
Nondik nora ibili haiz hainbeste denbora. / Non
utzi dituk hire lagunak.

Hator. Konta izkiguk / etxean isila sortzen duten /
aspaldiko gauza luze haiek.

Hator harmarik eta bildurrik gabe, / konta iguk
berriro nola hil ziren anaiak / anaiak hilda,
aberriaren alde / edo Kristoren izenean /
edo gerrara bialduta. / Nola anaia bakoitzean
aberri bat / isilik gelditzen zen mendian. / Bildur
isil bat nola hiltzen zen / hiltzeko bildur zen
semearen azkeneko dardaran, / edozein postura
itxuragabetan erorita. / Nola oroitzen zinaten
etxearekin.

Zenbait aldiz joan haiz harrez gero / Galdakaora,
ez dagoena ikustera. / Nola hiltzen ziren, / kexatu

gabe, ezer galdetu gabe, / galduta zekiten gerra
batetan, / egun batek bestea zekarrelako bakarrik.

Dena bukatuta zegoen aspaldian eta ezin zuen
bukatu. / Gero Burgosera, zazpi urte. / Eta
gero / semeak hazita zeuden ordurako / etxean.
Dena lehen bezalaxe. / Lan eskale. / Eta gero,
egunoroko egunak, isil-isilik.

Urteak eta urteak. / Ezer ez. Etxetik lanera,
lanetik etxera. / Etxean bakarrik aipatzen zen
iraganaldia. / Kotxea, telebista.

Konta iguk nola arbolak zeuden / mendian,
mendi euskaldunetan, / eta ez zuten
sentimendurik.

Esaiguk zergatik berrogei urte geroago / gerra
triste hura gure ariman oraindik dabilen. /
Zergatik hildako ezagutu ez dugun hainbeste /
gelditu den gure memorian. / Hil eta gero
alderdirik ez dagoela. / Zergatik gerra hura ez den
sekula amaitzen, / zergatik dagoen frontez beteta
egunoro gaua.

Esaiguk zergatik zer bait.

Eta ez badakik, nik esango diat: / hator, lagun, /
dena ez da deus izan, deus, / Arxandan, Urbasan,
Santoinan.

Oharrak:

1. *Puskailak* hitza Koldo Izagirreri zor omen dio, aspaldi omen zebilen horrelako hitz baten bila.

2. *Lurra* hitzak duen protagonismoa itzela da autore hauetan, autoretik autorera zentzu berean ez darabilten arren.

3. Oroitu esaterako baita ere Leteren: “Gu ezaren seme / zalantza orokorraren zaldun lurreratu / odol eta lokatzezko denbora hauetan nostaljiaren sabelean bilduta aurkitzen garenok...”

4. Azurmendiren idatzietan hasi hastapenetako idatzietatik eta gaur egungoetara arte, gutxiena espero duzunean ager daitekeen pertsonaia bat Prometeo da. Kuttuna duela esan liteke, sarritan aipamen soil bat egiteko bada ere, askotan darabilen hori.


Prometeo, europar kulturaren oso presente egon da diziplina artistiko desberdinetan. Baina ia beti, izaki ausart baten gisa. Ondoren gizakiei emateko jainkoei sua lapurtu zion hura bezala, edo Eskiloren *Prometeo kateatua* esaterako nagusia hil duen esklabo errebelde legez, edota salbatzera, laguntzera etorriko den mesiasaren metaforatzat.

Azurmendi baina, iduri du, Prometeo heroikoekin baino, Prometeo mixerableen kuadrillan erosoago sentitzen dela.

5. 1991ra arte argitaratu gabea izan arren, *Gizona abere butsa daren jarraian*, garai bertsuan idatzia.

Bibliografia:

- Agirre, Lorea (2014). Joxe Azurmendirekin solasaldia, in www.jakin.eus / memoria / solasaldiak / joxe-azurmendi / 8
- Azurmendi, Joxe (1968). “Manifestu atzeratua”, Olerti III-IV uztaila / abendua.
- Azurmendi, Joxe (1971). *Hitz Berdeak*. Aranzazu: Editorial Franciscana Aranzazu.
- Azurmendi, Joxe (1975a). *Gizona abere butsa da*, Arantzazu, Oñati: Jakin
- Azurmendi, Joxe (1975b). *Iraultza sobietarra eta literatura*, Bilbo: Ediciones Mensajero.
- Azurmendi, Joxe (1976). *Zer dugu Orixeren kontra*, Arantzazu, Oñati: Jakin.
- Azurmendi, Joxe (1978). *Mirande eta kristautasuna*, Donostia: Gipuzkoako aurrezki kutxa probintziala.
- Azurmendi, Joxe (1998). *Oraingo gazte eroak*, Irun:Luma.
- Azurmendi, Joxe (2003). “Epilogoia. Irakurketari jarraituz gogoetan”, in Aiestaran, I. *Munstro abertzalea*, Donostia: Elkar, 85-135.
- Estankona, Igor (2010). “Artean gazte eta berde:Azurmendiren *Hitz Berdeak* eta *Manifestu atzeratua*”, in Hegats 45, Donostia: Euskal Idazleen Elkarte, 71-83.
- Gandiaga, Bitoriano (1971). “Autorez eta Liburuaz” in Azurmendi, J. *Hitz Berdeak*, Aranzazu: Editorial Franciscana Aranzazu, 9-13.
- Izagirre, Koldo (2000). *XX. mendeko poesia kaierak: Joxe Azurmendi*. Zarautz: Susa.
- Juaristi, Felipe (1993). Hitzaurrea in Lasa, M. *Memory Dump*, Leioa: EHU
- Lasa, Mikel (1993). *Memory Dump*, Leioa: EHU.
- San Martin, Juan (1965). “Bi olerkari gazte munduaren orduan: Azurmendi ta Lasa”, Zeruko Argia, 1965-09-05.
- San Martin, Juan (1971). “Hitzaurrea” in Azurmendi, J. *Hitz Berdeak*, Aranzazu: Editorial Franciscana Aranzazu.
- San Martin, Juan (1978). *Agiriak: Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*, Donostia: Gipuzkoako aurrezki kutxa probintziala.
- Zarate, Mikel (1977). *Euskal Literatura*, Durango: Leopoldo Zugaza.



zaldiarri·7